

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Ospitale Guneak unitate bat abian jarri du elikagaiekiko intolerantzia murrizteko eta desagertzeko

Urtarrilaren 23tik hamabost haur tratatu ditu

Viernes, 01 de marzo de 2013

Nafarroako Ospitale Guneak elikagaiekiko Aho Tolerantziako Indukzio (ITO) unitate bat abian jarri du, behi-esnea eta oiloaren arrautza bereziki. Elikagai horiek berez 5 urtetik aurrera onartzen ez dituzten aurretiaz diagnostikatutako haurrak tratatuko ditu, batez ere alergia oso larria duten adingabeak eta aztarnak oharkabean hartzeagatik bizi-arriskuan daudenak.

CHNko Alergologia eta Pediatria zerbitzuek adostutako desentsibilizazio-tratamendua bost fasetan banatuta dago, eta honako honetan datza: tartean dagoen elikagaia, denbora-tarte erregularretan geroz eta dosi handiagoetan (mikrogramoak hartuz hasiko da) ematea era pertsonalizatuan eta kontrolatuan, harik eta, ahal bada, zenbait gramotara heltzen den arte, eta pazienteak egunero hartu beharko du bizitza guztian zehar, prentsaurrekoan Pediatria Zerbitzuko buru Enrique Bernaolak eta Alergologia Zerbitzuko buru Ana Tabar-ek azaldu dutenez. CHNko zuzendari Ignacio Iribarrenek zerbitzu hori Pediatriako "pixkanakako hobekuntza guztien" barnean sartu du: eguneko zentro onkologikoa, Pediatriako larrialdiak eta behaketa-unitate berria.

Tratamendu horrek tartean dagoen elikagaiaren kopuru txiekikiko pazientearen tolerantzia bermatzen du, eta hori hobekuntza handia da pazientearen segurtasunean eta familiaren bizi-kalitatean eta, sarritan, arazoak ematen dituen elikagaia normal hartzea dakar

Prozedura azken urteotan hobetu egin da eta hura jarraitzeko agindua zabaldu; hala, ospitaletako zerbitzuen sailean sartu da azken bizpahiru urteotan. Proiektua Osasunbidean hasiko da ikusita protokoloak nola hobetu diren eta prestatutako produktu egokiak berriki nola merkaturatu diren praktikan jartzeko, bai eta interes klinikoagatik eta tartean dauden bi mediku-talde izateagatik (Alergologia eta Pediatria) eta hura izateko pazienteen elkarrekin egindako eskaeragatik; izan ere, prozedurak pazienteen bizi-kalitatean eragiten du.

Biztanleen % 1 eta % 3 artean

Berriki egindako kalkuluen arabera, [elikagaien alergia](#) biztanleria guztiaren % 1etik % 3 bitarteko biztanleei eragiten die, eta hiru urte baino gutxiagoko hurrengan sarriagoa da; kasu horretan prebalentzia % 8ra hel daiteke, arrautzari eta esnari dioten alergiaagatik, batez ere.

Hala, 5 urterekin esnearekiko intolerantzia izaten jarraitzen dute

intolerantzia duten haurren % 10ak, eta arrautzarekiko, % 13 inguruk. Haietatik, % 20k erreakzio larriak ditu, maiz anafilaxia-eran, horrek dakarren bizi-konpromisoarekin eta elikagaiaren (aztarnak) kopuru txikiak hartuz sortzen direnak, askotan oharkabean; gertaera horrek antsietatea sortzen duen familiatan.

Ospitale Guneak, lehenik eta behin, zerbitzu berri hori arrautzarekiko intolerantzia larria duten haurrei eskainiko die. Pasa den hilaren 23tik aurrera, 15 tratamenduan daude eta zortzik intolerantzia gainditzen dutela detektatu da. Laster, unitatea esnari alergia dioten haurrak tratatzen hasiko da.

Tratamenduaren faseak

Tratamenduak bost fase ditu. Lehen hirurak 10-12 astez luzatzen dira gutxi gorabehera eta laugarrenak urtea gainditzen du.

1.- **Diagnostikoaren kanpo-kontsulta:** historia klinikoaren analisia, azaleko probak, arnas-funtzioko teknikak ikastea...

2.- **Diagnostikoa baieztatzeko test bat egitea** (ahoko probokazio bikoitz itsuaren testa) ospitalean, aztertzen ari den elikagaiari etengabeko alergia-diagnostikoa baieztatzeko beharrezkoa dena, eta banako dosia erabakitzea tratamenduari ekiteko. Probokazioaren emaitza positiboa bada, pazientearen tolerantziaren indukzio-fasera edo tratamendua egitera pasako da.

3.- **Tolerantziaren indukzioa ospitalean** (1-9 aste arrautzaren kasuan, adibidez). Tartean dagoen elikagaiaren gerroz eta dosi handiagoak ematean datza.

Astean egun batean, elikagaia emango da beti entrenatutako erizain baten eta mediku-espezialista baten ikuskaritzapean.

Ondoren, haurrak onartutako dosia hartu beharko du etxean, behar bezala ikuskatuta. Eta hurrengo astean, mediku-taldeak dosia handituko du. Etapa horretan beharrezkoa da Lehen Mailako Arretako pediatriako profesionalen laguntza.

Pazienteak eta haren familiak jarraibideak jasoko dituzte erreakzioak ezagutu eta tratatzeko etxean dosia hartu ondoren. Erreskateko sendagaia ematen zaio, beharko balu ere. Nolanahi ere, fase horretan, Larrialdietako medikuen laguntza ere behar da, erreakzioak badaude eta etxean azkar batean konpontzen ez badira.

4.- **Etxeko mantentze-lana.** Elikagaiarekiko dosi estandar batekiko tolerantzia lortu ondoren (edo hala badagokio, onartutako gehieneko dosia), pazienteak erregulariki hartzen jarraitu behar du delako elikagaiaren berriazko jarraibidearen arabera.

5.- **Dieta librea.** Aurreko fasean delako elikagaiarekiko tolerantzia arrunta ona ikusten bada, aurre-medikazioa pixkanaka gutxitzen da eta dieta apurka normalizatzen da.